

ZURE LANA AMAITU DA

**Engainatu, abusatu,
zirikatu, torturatu,
kolpeatu ta bortzatu,
zure lana amaitu da...**

**Kaleko legeak guk jartzen ditugu
ta etsaia etortzen denean gureak agurtuz
makilarekin kolpeatuz ta gu zirikatuz
potroetaraino gaude zure lana amaitu da**

**Zure lana amaitu da,
zu zara orain preso
kaleko legeak guk jartzen ditugu
zu zara orain etsaia!!!**

**Kartzelatu, iruzurtu,
atzipetu, txurikatu,
zigortu ta aztindu,
zure lana amaitu da...**

**Ta gure lana orain hasten denean
lan asko egiteko eta denbora gutxi
amaituko denean amaituko da
zure lana amaitu da...**

**Zure lana amaitu da,
zu zara orain preso
kaleko legeak guk jartzen ditugu
zu zara orain etsaia!!!**